

1. PLAN ESTRATEGIKOA.- Aurrekariak.

2007ko urriaren 31n, Pasaia Portuko Agintaritzako presidentek lan-programa bat aurkeztu zion Administrazio Kontseiluari, bi helburu hauek zituela:

- 1./ Badiako hirigintza biziberritzea, portuko industria-jardueraren zein hiri-garapen azkarraren eraginpean dagoelako eta antzina-antzinako hirigintza-politikek bere horretan dirautelako. Portuko jarduera handiena badiaren kanpoko aldera eramaten bada, portuko lurzorua liberatu egingo da, eta gizarte- eta komunitate-erabileretarako espazio moduan sailka daiteke. Hartara, gaur egun hiriaren eta portuaren arteko harremanean dauden interes-gatazkak gainditu ahal izango dira, eta Pasaian, Lezon nahiz Erreterian bizi diren herritarren bizi-kalitatea hobetu ahal izango da.
- 2./ Gipuzkoako eta Euskadiko enpresak portu-azpiegitura modernoz hornitzea, enpresek logistika- eta garraio-zerbitzu lehiakorra eta eraginkorra izan dezaten. Gaur egun, Pasaia portuko instalazioen gabezia industrial eta natural ugariak eragin handia dute portuaren lehiakortasunean, trafiko-eskaria gero eta zorrotzagoa baita.

Pasaia portua une erabakigarrian dago gaur egun, bere etorkizunari begira. Europako itsas garraioaren joerei erreparatuz gero, agerikoa da garraio-mota hori 2010. urtean bikoiztu egingo dela eta Europako herrialdeen arteko ibilbideak oso ohikoak izango direla. Intermodalitatea garapen logistikoaren erronka handia da, eta, horretarako eratuko diren azpiegituren sarean parte hartzeko, kalitate handiko instalazioak nahiz zerbitzuak eskaini behar dira, garapen iraunkorraren parametroei dagokienez.

1. PLAN ESTRATEGIKOA.- Aurrekariak.

1999. urteaz geroztik, badiako kanpoko aldeko portuarekin zerikusia duten lan, azterketa eta proiektu ugari egin dira. Azken urteotan egindako azterlan eta proiektuetan azaldutako azterketak, diagnostikoak eta proposamenak baloratu ondoren, Pasaia Portuko Agintaritzak administrazio eskudunei proposatu die Pasaia badiako oso-osorik biziberritzeko prozesu argia eta zehatza garatzea. Horren arabera, kanpoko dartsena berria 2010-2018rako egongo litzateke eraikita, eta 2020rako, abian. Hartara, gaur egun gizarte- eta komunitate-erabileretarako espazio moduan sailkatutako portuko lurzoruak liberatu egingo dira, hiriaren eta portuaren arteko harremanean dauden interes-gatazkak gainditzeko zehaztutako helburuak beteko dira eta lehen aipatutako udalerrietan bizi diren herritarren bizi-kalitatea hobetuko da.

Testuinguru horretan, Pasaia Portuko Agintaritzak aurkeztutako lan-programako azterlanetako bat Plan Estrategikoa da. Bertan, hain zuzen ere, gaur egungo egoeraren azterketa eta diagnostikoa egiten dira, lerro eta helburu estrategikoak definitzen dira, eta aurreko paragrafoetan aipatutako egoerak, jarduera-irizpideak eta ekintza-plana zein diren zehazten da.

2008ko urtarrilaren 9an, PAK Spim, S.L. enpresari esleitu zion agiri honetan azaldutako Plan Estrategikoa egiteko laguntza teknikoaren kontratazioa.

2008ko azaroaren 7an, Portuko Agintaritzako Administrazio Kontseiluak agiri hau onartu zuen.